

KONTROL MOZIOA

Morlans eta San Antonioko zerbitzuak direla eta

Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailaren 21ean Dbuseko Administrazioa Kontseiluaren bileran, Morlanserako autobus zerbitzu berri bat martxan jarri zela iragarri zen eta Administrazio Kontseiluak begi onez ikusi zuen, auzoarentzako zerbitzu behar-beharrezkotzat jotzen baitzuen. Era berean, San Antoniorentzako Taxi-bus zerbitzua martxan jartzea onartu zen, auzoaren irisgarritasun arazoak ikusirik aurrerapauso nabarmena zela onartuz.

Urriaren 31n, aldiz, Dbuseko aurrekontuak onartzera gindoazenean, aurkeztutako txostenean, bi lerroko aipamen batean, besterik gabe esaten zen 2018an 2017ko zerbitzu berak mantenduko zirela; hau da ez zela zerbitzu berririk martxan jarriko (ez Morlanseko autobusa, ez San Antonioko Taxi bus zerbitzua). Bakarrrik espreski galdetu zenean argitu zen Astiñeneko zubiaren itxiera dela-eta bertan egin behar den ezusteko kudeaketak eguneko aurreikusita ez zeuden 1.000 euroko kostua edukiko duela datozen bi edo hiru urteetan eta horixe zela Morlans eta San Antonioko zerbitzuak martxan ez jartzeko arrazoia.

Ezustekoak gerta daitezkeela mundu guztiak uler dezakeen zerbait den arren, ez dugu inondik inora ulertzen zer irizpide jarraitu diren Astiñene zubiko afera konpontzeko behar den dirua Morlans eta San Antonioko bizilagunei kentzeko; hau da, Morlanseko zerbitzua urteko 332.000 eurokoa da (Udalarentzako kostua, 247.000koa), urtean 120.000 bidaiaria aurreikusi dira, eta zergatik erabaki den Morlanseko bizilagunak horrela kaltetzea, iragarrita zegoen zerbitzu batean (geltokiak jarriak). Astiñeneko zubiaren afera ezin da inola ere bihurtu hiri guztiari kaltetuko dion domino efektuko gai bat. Bestalde San Antonio-Montesol-Caserio Parada inguruak urteetan zehar pairatu duen zerbitzu falta luzatuko da denboran, irisgarritasun arazoak nabarmenak daudela, biztanlegoaren profila ikusirik.

Honetaz interpelaturik, erantzun zitzaigun Astiñeneko zubiaren afera dela-eta ez zutela ez-ohiko partidarik martxan jarriko Loiolako autobus zerbitzuetan egin behar diren moldaketei aurre egiteko, horregatik Morlans eta San Antoniok ez dutela zerbitzurik edukiko eta etorkizunean partida ez-ohiko bat bilatu beharko dela zerbitzu horiek martxan jartzeko.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 -

Gure ustez, planteamendu honek ez dauka zentzurik; hau da, ez-ohiko afera baten aurrean ez-ohiko partida bat jarri behar da gertatutakoa konpontzeko; ez, ordea, beste bizilagun batzuen kaltetan, beraiei agindutako zerbitzua kendu.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau hau egiten du:

- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Morlanseko autobus zerbitzua eta San Antonioko Taxi-bus zerbitzua lehenbailehen martxan jar ditzala 2018an.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Ayem Oskoz Urrtikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia